# Akta

**UDAL OSOKO BILKURA** SESION PLENARIA MUNICIPAL.

**TOKIA / LUGAR:** Udaletxea
**EGUNA / FECHA:** 2016/5/25
**HASIERA / INICIO:** 19:00
**AMAIERA/FINAL:** 20:45
**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**ALKATEA/ALCALDE**
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:**
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Naiara Ruiz Badiola (EAJ-PNV)
Iñaki Inzunza Urrutia (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)
Rodolfo Lartitegi Azpitarte (BIT)

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Víctor-Martín Amparan Álvarez

**IZAERA / NATURALEZA:** Ohikoa / Ordinaria
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** Lehena / Primera

Busturiko Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkatea Mahaiburu eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udaleko Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Saioan ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.

Alkate Jaunak aginduta hasiera eman zitzaion bilerari zinegotziei nahikoa denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, honako akordioetara iritsita:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

**1.- Aurreko saioko akta.-**

Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen mahai gainean uztea 2015eko apirilaren 27ko saioko akta, hirugarren puntuaren bozketa egiaztatze aldera, ezespen anizkoitzerako akordioari buruzkoa.

**1.º.- Acta de la sesión anterior.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó dejar sobre la mesa el acta de la sesión de 27 de abril de 2015, para comprobar la votación del punto tercero sobre acuerdo de recusación múltiple.

**2.- Kirol-instalazioen gaineko ordenantza aldatzea.-**

Osoko Bilkurak, aho batez, erabaki zuen:

LEHENA: Busturiko kirol-instalazio estalien erabilera arautzen duen Ordenantzaren aldaketa behin-behinean onartzea, 6. artikuluan honako bi atal hauek txertatzeko:

> “10.- Altamirako Herri Eskola irekita dagoen egunetan, Altamirako tenis-pistak erreserbatuta egongo dira, 16:00retatik 18:00etara, aipatu ikastetxeko ikasleentzat.
>
> 11.- Aurreko guztia baztertu gabe, ahalegina egingo da tenis-pista bat tenisean jokatzeko erreserbatzeko”.

BIGARRENA: jendaurrean jartzea eta interesdunei audientzia ematea gutxienez hogeita hamar egunez; epe horretan interesdunek egoki irizten dieten kexak eta iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte.

HIRUGARRENA: Ez balitz kexarik edo iradokizunik aurkeztuko, akordio hau behin betiko onartutzat joko da, eta Alkate-Presidentea espresuki egongo da ahaldunduta argitaratzeko eta gauzatzeko.

**2.º.- Modificación de la ordenanza de instalaciones deportivas.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó:

PRIMERO: Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza reguladora del uso de las instalaciones deportivas cubiertas de Busturia para introducir los siguientes apartados al artículo sexto:

> “10.- Los días en que permanezca abierto el Colegio Público de Altamira, las pistas de tenis de Altamira estarán reservadas para el uso del alumnado de dicho centro, desde las 16:00 hasta las 18:00 horas.
>
> 11.- Sin perjuicio de lo anterior, se tratará de reservar una de las pistas para la práctica del tenis”.

SEGUNDO: Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo mínimo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

TERCERO: En caso de que no se presente ninguna reclamación o sugerencia se entenderá definitivamente adoptado el presente acuerdo quedando facultado expresamente el Alcalde-Presidente para su publicación y ejecución.

**3.- Taxien udal-ordenantza.-**

Ikusita Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesio Sailak igorritako proposamena, Osoko Bilkurak aho batez honako hau erabaki zuen:

LEHENA: Taxien udal-ordenantzaren aldaketa behin-behinean onartzea honako irizpide hauek txertatzeko:

> “LEHENA.- Bidaiariak Herri Barruan eta Herritik Kanpo Autoz Garraiatzeko Zerbitzu Publikoa arautzen duen Legearen Araudia onetsi zuen urriaren 15eko 243/2002 Dekretuaren 28. artikuluaren interpretazio-irizpideen

**3.º.- Ordenanza municipal del taxi.-**

Vista la propuesta remitida por el Departamento de Transportes, Movilidad, y Cohesión del Territorio de la Diputación Foral de Bizkaia, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó:

PRIMERO: Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza municipal del taxi para introducir los siguientes criterios:

> “PRIMERO.- Al amparo de los criterios de interpretación del art 28 del Decreto 243/2002, de 15

arabera (Legea zein Araudia Garraioen eta Mugikortasunaren zuzendaritzaren izapide bidez onartu ziren 2016ko apirilaren 26an), eta bertan jasotzen diren aparteko baldintzak beteta, taxi-zerbitzuek bederatzi eserlekura bitarteko ibilgailuetan, gidaria barne, zerbitzua emateko bete beharreko baldintzak ezartzen dira:

1.- Bost eserlekutik gorako ibilgailuek, gidariarena barne, mugikortasun urriko pertsonentzat egokituta egon behar dute.

2.- Aipatu ibilgailuetan lau bidaiarik baino gehiagok bidaiatzeko zerbitzu-eskaera, aurretik kontratatuta eta udalak ezarritakoaren arabera egingo da.

3.- Geltokietan ezingo dira lau bidaiari baino gehiago hartu, mugikortasun urriko pertsonen kasuan izan ezik.

4.- Ibilgailu hauen zerbitzuak onarturiko tarifen arabera kobratuko dira, ez eserleku-kopuruaren arabera, eta ezingo da inolako gehigarririk kobratu.

5.- 9 eserleku bitarteko egokituriko ibilgailuetarako baimen bat baino gehiago dagoen udalerrietan, komenigarria litzateke egokituriko ibilgailu-zerbitzua egunean 24 orduz bermatu ahal izatea.

BIGARRENA.- Bidaiariak Herri Barruan eta Herritik Kanpo Autoz Garraiatzeko Zerbitzu Publikoa arautzen duen Legearen Araudia onetsi zuen urriaren 15eko 243/2002 Dekretuaren 28. artikuluaren interpretazio-irizpideen arabera emandako baimenak behin-behinekoak dira eta ez dute onuradunen aldeko eskubiderik sortzen; hortaz, deuseztatu ahal izango dira inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik eragin gabe."

BIGARRENA: jendaurrean jartzea eta interesdunei audientzia ematea gutxienez hogeita hamar egunez; epe horretan interesdunek egoki irizten dieten kexak eta iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte.

HIRUGARRENA: Ez balitz kexarik edo iradokizunik aurkeztuko, akordio hau behin betiko onartutzat joko da, eta Alkate-Presidentea espresuki egongo da ahaldunduta argitaratzeko eta gauzatzeko.

de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros de automóviles de turismo, aprobados por la instrucción de la dirección general de Transportes y Movilidad de 26 de abril de 2016, y concurriendo las circunstancias de excepcionalidad que se recogen en la misma, se establecen las condiciones de prestación que deben reunir los servicios de taxi en vehículos con una capacidad hasta nueve plazas, incluido el conductor:

1.- Los vehículos de más de cinco plazas, incluido el conductor, deberán estar adaptados para personas con movilidad reducida.

2.- La demanda de servicios para más de cuatro viajeros en los citados vehículos se realizará previa contratación y de acuerdo con lo establecido por el ayuntamiento.

3.- En las paradas no se podrá recoger más de cuatro viajeros, salvo casos de personas con movilidad reducida.

4.- Los servicios en estos vehículos se cobrarán de acuerdo con las tarifas aprobadas, nunca por plaza y sin que quepa cobrar suplemento alguno.

5.- En aquellos municipios con más de una licencia con vehículo adaptado de hasta 9 plazas, sería conveniente garantizar este tipo de servicio en vehículo adaptado durante las 24 horas del día.

SEGUNDO.- Las autorizaciones otorgadas al amparo de los criterios de interpretación de la dirección general de transportes y movilidad, del artículo 28 del Decreto 243/2002, de 15 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de Viajeros de Automóviles de Turismo adoptados el 26 de abril de 2016, lo son en precario y no crean derechos a favor de sus beneficiarios por lo que serán libremente revocadas sin derecho, indemnización o compensación alguna."

SEGUNDO: Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo mínimo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

TERCERO: En caso de que no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el presente acuerdo quedando facultado expresamente el Alcalde-Presidente para su publicación y ejecución.

**4.- Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen Udal Ordenantza Fiskala.-**

Osoko Bilkurak aho batez honakoa erabaki zuen:

LEHENA.- Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen Udal Ordenantza Fiskalaren 18.2 artikuluaren aldaketa behin-

**4.º.- Ordenanza Fiscal del Impuesto de Bienes Inmuebles.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó:

PRIMERO.- Aprobar provisionalmente la modificación del artículo 18.2 de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto

behinean onartzea; honela idatzita geratuko litzateke:

- Hiriko Ondasunen Tipo Orokorra: % 0,05
- Tipo Industriala: % 0,172.
- Gainerakoen Tipoa: % 0,044.
- Landako Ondasunen Tipo Orokorra: % 0,1.

BIGARRENA.- Iragarki-taulan jendaurrean jartzea dagokion iragarkia 30 egunez; epe horretan, interesdunek txostenak aurkeztu eta egoki irizten dieten kexak aurkeztu ahal izango dituzte. Era berean, argitalpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean egingo da.

HIRUGARRENA.- Jendaurrean egoteko epea bukatutakoan, Korporazioak dagozkion behin betiko akordioak hartuko ditu, aurkezturiko kexak ebatzita eta Ondasun Higiezinen gaineko zerga arautzen duen Udal Ordenantzaren behin betiko idazketa onartuta; ez balitz inolako erreklamaziorik aurkeztuko, dagokion behin-behineko akordioa behin betikotzat joko da, osoko bilkurak akordioa egin behar izan gabe.

LAUGARRENA.- Aurreko atalaren arabera, orain onartu beharrekoa den Ondasun Higiezinen Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren onarpenaren testu osoaren behin betiko akordioa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, indarrean sar dadin.

de Bienes Inmuebles que quedaría redactado de la siguiente manera:

- Tipo General de Bienes de Naturaleza Urbana: 0,05 %
- Tipo Industrial: 0,172 %.
- Tipo resto: 0,044 %.
- Tipo General de Bienes de Naturaleza Rústica: 0,1 %.

SEGUNDO.- Exponerla al público con colocación del correspondiente anuncio en el tablón de anuncios del Ayuntamiento durante un plazo de 30 días, dentro de los cuales los interesados podrán examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas. Asimismo, proceder a su publicación, en todo caso, en el Boletín Oficial de Bizkaia.

TERCERO.- Finalizado el periodo de exposición pública, la Corporación procederá a adoptar los acuerdos definitivos que procedan, resolviendo las reclamaciones que se hubieran presentado y aprobando la redacción definitiva de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto de Bienes Inmuebles, aprobada provisionalmente, salvo que no se hubiera presentado reclamación alguna, en cuyo caso el correspondiente acuerdo provisional se entenderá definitivamente aprobado, sin necesidad de acuerdo plenario.

CUARTO.- En virtud del apartado anterior procederá la publicación del acuerdo definitivo del texto íntegro de la aprobación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto de Bienes Inmuebles, que es objeto ahora de aprobación, en el Boletín Oficial de Bizkaia a efectos de su entrada en vigor.

**5.- Bilduren mozioa Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren eta Katastroaren inguruan.-**

Osoko Bilkurak, aldeko hiru botorekin eta bost abstentziorekin, EH Bilduko zinegotzien ondoko proposamena onartu zuen:

> “40 urte dira Bizkaian katastroa eguneratu ez dela eta honek eragin du herritarrek Ondasun Higiezinen gaineko zergaren bidez eta beste zerga batzuen bidez, ordaintzen dutena egokitu gabe dagoela gaur eguneko egoerara. Badakigu jakin katastroa eguneratu beharra dagoela, herritarren arteko desorekak amaitu eta egokitzeko, baina kontziente gara ere honek lanketa bat beharrezkoa duela eta Bizkaiko Foru Aldundiak horretarako erabili duen prozedura ez dela egokia deritzogu, izan ere 40 urtean egin ez duena orain urtebetean egitea nahi duelako, prisa guztiz, epea nahikoa ez delarik eta udalei (ez dezagun ahaztu Ondasun Higiezinen gaineko zerga udal zerga dela) margenik eman gabe gauzak behar bezala egiteko; arazoak sortzen dizkie udalei; behar bezala ponentzia baloreak aztertzeko aukerarik gabe; eta jakinda egiten

**5.º.- Moción de Bildu sobre Norma Foral del Impuesto de Bienes Inmuebles y Catastro.-**

El Ayuntamiento Pleno, por tres votos a favor y cinco abstenciones, aprobó la siguiente propuesta de los concejales de EH Bildu:

> “Son más de 40 años desde que en Bizkaia no se ha actualizado el catastro y ello ha llevado a que a día de hoy tampoco este actualizado la cuantía que los ciudadanos/as pagan mediante el Impuesto sobre Bienes Inmuebles o otros impuestos. Sabemos que es necesario que el Catastro se actualice pero también somos conscientes de que el proceso llevado a cabo por la Diputación Foral de Bizkaia para ello, no es el adecuado ya que lo que en 40 años no ha hecho, lo quiere llevar a cabo en un año, a toda prisa y sin dar ningún margen de maniobra a los Ayuntamientos para que puedan hacer bien las cosas, sin poder analizar adecuadamente las ponencias de valores y además, sabiendo que cualquier alegación o propuesta que se haga no es vinculante para la Diputación.
>
> Con la revisión del Catastro, las Juntas Generales de

duten edozein proposamen edo alegazio ez loteslea dela Aldundiarentzat.

Katastroa egokitzearekin batera, Bizkaiko Batzar Nagusiak Ondasun Higiezinen gaineko zergaren Foru Arauaren proiektua ere lantzen ari da, Foru Arau hau ere egokitu behar dela katastroaren berrikuspenaren batera.

Busturiko EH Bildu udal taldeak momentu egokia dela dio Foru Arau horrek orain arte kontuan hartu ez dituen hobari, eta errekargu batzuk ezartzeko aukera eman diezaiela Udalei. Hobari eta errekargu hauen bidez, udal politika fiskal ekitatiboago eta justuago baten aldeko aurrerapausoak emango dira. Momentua da, herritarrek dituzten etxe hutsak beste herritarren eskuetara ipintzeko politikak bultzatzeko, etxebizitza eskubidea delako eta ez pribilegio bat eta baita ere, gaur egungo krisi ekonomikoaren ondorioz, herritarren diru sarreren ahalmena kontuan hartzea Ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzean ere.

Hau guzti honegatik, EH Bilduren Udal Taldeak, honako Mozioa proposatzen dio Busturiko Udalbatzari, jorratzeko eta, hala badagokio, onartu dezan eta Bizkaiko Batzar Nagusiei eta Bizkaiko Foru Aldundiari ondorengoa eskatzeko:

1) Busturiko udalak Bizkaiko Batzar Nagusiei eta Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen die: Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezinen Foru Katastroari buruzko foru arauren proiektuaren 27. artikulua aldatzea eta kontuan hartu dezala udalek alegatzen edo esaten dutena, bere iritzia kontuan hartzeko mekanismoak bultzatuz.

2) Busturiko udalak Bizkaiko Batzar Nagusiei eta Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen die: Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren proiektuan sartzea udalek 100eko 150erainoko errekargua ezarri diezaieketela ohiko etxebizitzak ez diren higiezinei: Ondasun higiezinek etxebizitza erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–, udalek 100eko 150erainoko errekargua ezarri dezakete zergaren kuota likidoaren gainean. Errekargua zerga honen subjektu pasiboei exigituko zaie, haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera

3) Busturiko udalak Bizkaiko Batzar Nagusiei eta Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen die Ondasun Higiezinen gaineko Zergarri buruzko Foru Arauaren proiektuan ondoko hobaria sar dezan: baliabide ekonomikoen ezaren bat-bateko egoeran aurkitzen diren jabeek, Ondasun Higiezinen gaineko zerga-kuota

Bizkaia también están trabajando en el proyecto de Norma Foral del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, debiendo adecuarse a la vez que la revisión del Catastro.

El grupo municipal de EH Bildu de Busturia cree que es buen momento para que esa Norma Foral posibilite a los ayuntamientos establecer bonificaciones y recargos que hasta ahora no eran posibles. Mediante ellos, se van a dar pasos en una política fiscal local más justa y equitativa. Es el momento para que las casas vacías que tienen los ciudadanos/as se pongan al servicio de los que no lo tienen, ya que la vivienda es un derecho y no un privilegio y también que a consecuencia de la crisis económica, se tenga en cuenta la capacidad adquisitiva de los contribuyentes en el nuevo Impuesto Sobre Bienes Inmuebles.

Por todo ello, el grupo municipal de EH Bildu de Busturia, propone al Pleno de Busturia, la siguiente moción para su debate y aprobación:

1) Que el Ayuntamiento de Busturia solicite a las Juntas Generales de Bizkaia y a la Diputación Foral de Bizkaia la modificación del artículo 27 del proyecto de Norma Foral, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio de Bizkaia, para que la Diputación tenga en cuenta las alegaciones de los Ayuntamientos e interponga mecanismos suficientes para ello.

2) Que el Ayuntamiento de Busturia solicite a las Juntas Generales de Bizkaia y a la Diputación Foral de Bizkaia que en el proyecto de Norma Foral del Impuesto sobre Bienes Inmuebles establezca el siguiente recargo: Tratándose de bienes inmuebles de uso residencial que no constituyan la residencia habitual del sujeto pasivo o de terceros por arrendamiento o cesión de su uso, los Ayuntamientos podrán exigir un recargo de hasta el 150 por 100 de la cuota líquida del Impuesto. Dicho recargo, que se exigirá a los sujetos pasivos de este tributo, se devengará en el mismo momento que el impuesto sobre el que se aplica y se liquidará anualmente, conjuntamente con la cuota.

3) Que el Ayuntamiento de Busturia solicite a las Juntas Generales de Bizkaia y a la Diputación Foral de Bizkaia que en el proyecto de Norma Foral del Impuesto sobre Bienes Inmuebles establezca la siguiente bonificación: Aquellos inmuebles cuyos propietarios se encuentren en una situación sobrevenida de falta de recursos económicos, podrán solicitar una reducción de hasta el 95% del IBI, bajo las condiciones que deberá concretar cada Ayuntamiento y previa solicitud y concesión del mismo. Esta situación no podrá alargarse en el tiempo más de 4 años

4) Que el Ayuntamiento de Busturia solicite a las Juntas

osoaren %95erainoko hobaria eska dezakete, dagokion Udalak zehazturiko baldintza pean. Hobari hau ezin izango da aplikatu 4 ekitaldi baino gehiagotan.

4) Busturiko udalak Bizkaiko Batzar Nagusiei eta Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen die Ondasun Higiezinen gaineko Zergarri buruzko Foru Arauaren proiektuan hobari progresibo bat ezar dezala bizikidetza-unitatearen kide kopuruaren eta errenta-mailaren arabera. Ordenantza fiskalek zehaztuko dute hobari hau eskuratzeko baldintzak.

5) Bizkaiko Foru Aldundiari eta Bizkaiko Batzar Nagusiei mozio honen berri ematea

6) Mozioa Busturiko Udalak dituen bitarteko ezberdinen bitartez jakinaraziko zaie herritarrei."

Generales de Bizkaia y a la Diputación Foral de Bizkaia que establezca una bonificación progresiva en el proyecto de Norma Foral del Impuesto sobre Bienes Inmuebles a la cantidad de miembros de la unidad convivencia y el nivel de renta. Las ordenanzas fiscales especificarán los requisitos para obtener dicha bonificación.

5) Se de cuenta de esta moción a la Diputación Foral de Bizkaia y a las Juntas Generales de Bizkaia.

6) Se de cuenta de esta moción a los ciudadanos/as por los medios que el Ayuntamiento de Busturia disponga."

**6.- EH Bilduren mozioa errefuxiatuen gainean.-**

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen EH Bilduko zinegotzien ondoko proposamena:

"Nazioarteko erakundeek zabaldutako datuen arabera, munduan 60 milioitik gora pertsona desplazatuta bizi dira, gerrak, barne-gatazkak, eta, gero eta gehiago, klima-aldaketaren eraginek areagotutako pobrezia-egoerak direla-eta.

Nagusiki Siriako gerrak eragindako larrialdi-egoerari aurre egiteko, milaka eta milaka pertsona Europar Batasunera iritsi dira laguntza eske. Asko eta asko Mediterraneoan hil dira, Europaren atean, herriak batu beharrean, hobi komun erraldoi bihurtu den itsasoan, Europar Batasunak hegoaldeko ertzean bultzatutako politiken ondorioz neurri handi batean.

Europar Batasuna, eta estatu kideak bereziki, eskas ibili dira ez dutelako "bide segururik" ezarri, ezta pertsonak salbatzeko behar diren bitartekoak ere; gainera, asilo-eskatzaileak birkokatzeko kupoak ere ez dituzte bete, eta Turkiarekin akordio lotsagarri bat sinatu dute pertsonak itzultzeko. Giza Eskubideak bermatzeko gauza ez den Estatu bat ez da inoiz segurua izango gatazka-eremuetatik ihesi dabilen jendearentzat.

Horregatik uste dugu ezinbestekoa dela pertsonen joan etorri askerako eskubidea berriz ere indarrean jartzea, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 13. artikuluan ezarritakoa betez. Eskubide humanitarioetan oinarritutako harrera-politikak abian jarri behar direla uste dugu, baita, oro har, gatazkak konpontzeko politikak sustatu behar direla ere, bitarteko baketsu eta demokratikoak erabiliz.

Horregatik, Udal honek honako hau erabaki du:

- Asilo-eskatzaileak ez itzultzeko eta ez kanporatzeko exigitzen du, eta Europar Batasunaren eta Turkiaren arteko akordioa indargabetzeko eskatzen du,

**6.º.- Moción de EH Bildu sobre refugiados.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprobó la siguiente propuesta de los Concejales de EH Bildu:

"En base a los datos difundidos por organismos internacionales, más de 60 millones de personas viven desplazadas en el mundo, razón de guerras, conflictos internos y, cada vez más, por situaciones de pobreza agudizadas por los efectos del cambio climático.

Ante la situación de emergencia derivada principalmente de la guerra en Siria, decenas de miles de personas han llegado a la Unión Europea solicitando ayuda. Muchas han perecido en las puertas de Europa, en ese Mediterráneo que debiera ser nexo de unión entre pueblos, pero que se ha transformado en una enorme fosa común, en gran parte por las políticas impulsadas en la orilla sur por la propia Unión Europea.

La Unión Europea y, sobretodo los estados miembro, no han estado a la altura al no establecer "vías seguras"; no han puesto medios necesarios para el salvamento de personas; no ha cumplido los cupos de reubicación de solicitantes de asilo; y acaba de firmar un vergonzoso Acuerdo de Devolución de Personas con Turquía. Un Estado que no garantiza los DDHH no puede ser considerado nunca como seguro para personas que escapan de zonas en conflicto.

Creemos por ello que es imperativo reponer el derecho a la libre circulación de personas, tal como figura en el artículo 13º de la Declaración Universal de los Derechos Humanos. Abogamos por la implementación de políticas de acogida basadas en el derecho humanitario y, más en general, por la promoción de políticas destinadas a facilitar la resolución de los conflictos, por medios pacíficos y democráticos.

Por ello, este Ayuntamiento:

- Insta a la no devolución ni expulsión de solicitantes de

nazioartean asilo-alorrean indarrean dagoen legeriaren aurka doalako.
- Europar Batasunari eta Estatu espainolari estatu kideetan harrera-prozesua azkartzeko erreklamatzen die, asilo-eskatzaileak hartzeko ezarritako kupoen arabera, eta Europar Batasunak eta estatu kideek pertsona horiek birkokatzeko ardura atzeratzen ari direla salatzen du.
- Udalerri honek dagozkion errefuxiatu eta asilo-eskatzaileak lehenbailehen hartzeko prest dagoela adierazten du, eta erakunde arteko akordio bat egiteko deia egiten du, pertsona horien eskura bizi-baldintza duinak bermatzeko behar diren bitartekoak jarriko dituen akordioa."

asilo y demanda la derogación del Acuerdo Unión Europea- Turquía por ser contrario a la legislación internacional en materia de asilo.
- Reclama a la UE y al Estado español acelerar el proceso de acogida en los estados miembro, según los cupos fijados de solicitantes de asilo, y denuncia el retraso en la reubicación de estas personas por parte de la UE y los estados miembro.
- Expresa la disponibilidad inmediata de este municipio para acoger a los y las refugiadas y solicitantes de asilo que correspondan y hace un llamamiento a elaborar un acuerdo inter-institucional designando recursos para poder garantizarles unas condiciones de vida dignas."

**7.- Hitzarmena Biscaytikekin.-**

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Biscaytik Fundazioarekin izenpetu beharreko "Erakundearen Gobernu Irekiko Plataforma" izeneko berariazko hitzarmena.

**7.º.- Convenio con Biscaytik.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprobó el convenio específico "Plataforma de Gobierno Abierto de la Entidad" a suscribir con la Fundación Biscaytik.

**8.- "Gure esku dago"ren proposamena.-**

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen berrestea "Gure esku dago"ren ondoko adierazpena:

"Herri bat gara, gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea daukagu. Busturiko herritarrok gure eskubidea gauzatu gura dugu, gizarte justuago bat lortzeko, elkarbizitza indartzeko, era partehartzailean gure herriaren prozesu demokratiko eta askatzailean aurrera egiteko..."

**8.º. Propuesta de "Gure esku dago".-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó ratificar la siguiente declaración de "Gure esku dago":

"Somos un pueblo, tenemos el derecho a decidir nuestro futuro. Los ciudadanos de Busturia queremos realizar nuestro derecho, para conseguir una sociedad más justa, para fortalecer la convivencia, para avanzar en el proceso democrático y liberador de nuestro pueblo en modo participativo...."

**9.- Bizkaiko Foru Aldundiaren abokatuentzako eta prokuradoreentzako boterea.-**

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen honako abokatuei eta prokuradoreei ahalorde orokorraren helarazpena egitea, eta horretarako behar diren dokumentuak sinatzeko Alkateari eskumena eman zion.

**9.º.- Poder para abogados y procuradores de la Diputación Foral de Bizkaia.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó conferir poder general a favor de los letrados y procuradores que a continuación se indican, autorizando al Sr. Alcalde para suscribir los documentos que sean necesarios:

**ABOKATUAK/LETRADOS:**

D. José Luis Etxeberria Monasterio, Dña. Itziar Arambarri León, Dña. Mª Ángeles Aransay Arroyo, D. Joaquín Gastón Fernandez De Arcaya, D. Santiago Aranzadi Martinez Intxausti, D. Julen Eguiluz Olano, D. Antón Maturana Pérez, Dña. Maria Barrena Ezcurra, D. Jorge Alciturri Imaz, Dña. Arantzazu Arranz Bilbao y D. Juan Carlos Gonzalez Olea.

**PROKURADOREAK/PROCURADORES:**

Bilbao .- D. Germán Apalategui Carasa, Dña. Concepción Imaz Nuere, Dña. Montserrat Colina Martinez, Dña. Monika Durango García, D. Alfonso Jose Bartau Rojas, Dña. Lucila Canivell Chirapozu y Dña. Iciar Loubet Luzarraga, Maria Jose Gonzalez Cobreros, y Alfonso Legorburu Ortiz De Urbina

Barakaldo.- D. Germán Apalategui Carasa, Dña. Concepción Imaz Nuere, Dña. Montserrat Colina Martinez y Dña. Monika Durango García, Dña Susana Canduela Alba, Dña. Maria Jose Gonzalez Cobreros y D. Alfonso Legorburu Ortiz De Urbina

Getxo.- D. Germán Apalategui Carasa, Dña. Concepción Imaz Nuere, Dña. Montserrat Colina Martinez y Dña. Monika Durango

García, Dña. Maria Jose Gonzalez Cobreros y D. Alfonso Legorburu Ortiz De Urbina
Durango.- D. Carlos J. Saiz De Trueba Pérez, D. Carmelo Bengoa Losa y Dña. Esther Asategui Bizkarra.
Balmaseda.- D. Carlos Manuel Martinez Rivero y D. Ignacio Echevarria Otañes
Gernika.- Dña. Mª Cruz Celaya Ilibarri, D. Carlos Muniategi Landa y Dña. Miren Irune Gorroño Menchaca
Amurrio.- Dña. Maria Soledad Buron Morilla; D. Jaime Aperribay Gandazabal y D. Federico De Miguel Alonso.
San Sebastián.- Dña. Begoña Álvarez Lopez; Dña. Maria Luisa Aranguren Letamendia y D. Ramon De Olazabal y Vedruna.
Azpeitia.- D. Jose Ignacio Amilibia Ortiz De Pinedo; D. Angel Maria Echaniz Aizpuru y D. Angel Echaniz Cendoya.
Bergara.- D. Jose Amilibia Peyrussane; D. Carlos Tomas Moreno Ortueta y D. Jose Alberto Amilibia Mugica.
Eibar.- D. Jose Amilibia Peyrussane; D. Carlos Tomas Moreno Ortueta y D. Jose Alberto Amilibia Mugica.
Irun.- Dña. Begoña Álvarez Lopez; Dña. Maria Luisa Aranguren Letamendia y D. Ramon De Olazabal y Vedruna.
Tolosa.- D. Jose Ignacio Otermin Garmendia; Dña. Maria Vega Pérez Arroyo y D. Juan Manuel Sanz Elosegui
Vitoria.- Dña. Ana Rosa Frade Fuentes, D. Jorge Fernando Benegas Garcia y D. Jesus Maria De Las Heras Miguel
Zaragoza.- Dña. Blanca Maria Andres Alaman
Madrid.- D. Julián Del Olmo Pastor, D. Jorge Laguna Alonso, D. Francisco Abajo Abril, D. Manuel Francisco Ortiz De Apodaca García, Dña. María Jesús Gutiérrez Aceves y D. Javier Jañez Gutiérrez.

**10.- Euskeraz olgetan.-**

Ruiz zinegotzi andreak Udalekuak 2016 kanpainaren baitan aurreikusita dauden jardueren eta txangoen berri eman zuen, bai eta aurreikusitako egutegiaren (ekainaren 28tik uztailaren 29ra) eta ordutegiaren (erabaki zen ordu erdi luzatuko zela txangoa dagoen egunetan) berri ere; horrek, logikoki, eragina dauka ikastaroen kostuetan eta izena emandakoek ordaindu beharreko tasetan.
Osoko Bilkurak aho batez adostu zuen Tokiko Gobernu Batzordearen maiatzaren 18ko akordioa aldatzea, honela:
Tarifak:
- Erroldatuak (2016ko urtarrilaren 1a baino lehen):
  - 70 € haur bat
  - 85 € bi anaia-arreba
  - 95 € hiru anaia-arreba
- Erroldatu gabeak:
  - 140 € haur bat
  - 170 € bi anaia-arreba
  - 190 € hiru anaia-arreba

Txangoak prezioaren barnean daude.

**10.º.- Euskeraz olgetan.-**

La concejala Sra. Ruiz informó de las actividades y excursiones que está previsto realizar durante la campaña de Udalekuak 2016, así como el nuevo calendario previsto (28 de junio a 29 de julio) y el horario (que se decidió que se prolongaría media hora los días en los que haya excursión); ello lógicamente repercute en el costo de los cursos y en las tasas que abonan los inscritos.
El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó modificar el acuerdo adoptado por la Junta de Gobierno Local el 18 de mayo en el siguiente sentido:
Tarifas:
- Empadronados (antes del 1 de enero de 2016):
  - 70 € un niño/a
  - 85 € dos hermanos/as
  - 95 € tres hermanos/as
- No empadronados:
  - 140 € un niño/a
  - 170 € dos hermanos/as
  - 190 € tres hermanos/as

Las salidas están incluidas en el precio.

**11.- San Antonioko enklabea ezabatzeko espedientea.-**

LEHENA.- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusira igorritako idazkian, 2015eko abenduaren 4an, Foru Aldundiko abokatuak esplizituki dio San Antonioko enklabea ezabatzeko jarraitu beharreko prozedura dela 8/1993 Foru Arauaren 53. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa.
BIGARRENA.- Era berean, 316/13 Epaia betearazteko Foru Aldundiko organo eskudunak, hau da, Zerbitzuen, Udal Harremanen eta Larrialdien Zuzendari Nagusiak, Aldundiko abokatuak 2015eko abenduaren 4an EAEANra igorritako idazkiaren eranskinean adierazten du enklabea ezabatzeko

**11.º.- Expediente de supresión del enclave de San Antonio.-**

PRIMERO.- En escrito dirigido al Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, el 4 de diciembre de 2015, la abogada de la Diputación Foral explícitamente se refiere a que el procedimiento a seguir en la supresión del enclave de San Antonio es el establecido en los arts. 53 y siguientes de la Norma Foral 8/1993.
SEGUNDO.- Igualmente, el órgano de la Diputación Foral responsable de la ejecución de la Sentencia 316/13, es decir, el Director General de Servicios, Relaciones Municipales y Emergencias, en el anexo que acompaña al escrito de la

jarraitu beharreko prozedura dela Bizkaiko udal-barrutien 8/1993 Foru Arauaren 53. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa.

HIRUGARRENA.- Hori guztia EAEANk berretsi zuen 2015eko abenduaren 18ko epailearen Erabakiaren bidez, eta Aldundiari abenduaren 23an eman zitzaion horren berri. Erabaki horretan ebatzi zen enklabea ezabatzeko jarraitu beharreko prozedura dela 8/1993 Foru Arauaren IV. Tituluaren II. kapituluan ezarritakoa.

LAUGARRENA.- Aurreko guztiari aurka eginda, Eibexen dokumentuaren arabera (Foru Aldundiak enpresa hori kontratatu zuen enklabea ezabatzeko eta Busturiko udal-barrutiaren zati bat Sukarrietaren mesedetan bereizteko), aplikatu beharreko prozedura da 9/2012 Foru Araukoa, lurralde-mugaketei buruzkoa, zehazki 27. artikuluan jasotakoa, baina dokumentu horretan ez da inola ere aipatzen 27. artikuluak berak, 3. zenbakian, boluntariotasun-printzipioa eskatzen duela Busturiako zati bat Sukarrietaren alde bereizteko, eta, horrez gain, Foru Arauaren 36. artikuluak ez diola ahalmena ematen Aldundiari udal-barrutiak eraldatzeko prozedurarik hasteko; hain zuzen ere, horixe da Busturiko zati bat Sukarrietaren mesedetan bereiztea.

BOSGARRENA.- Diputatuen Kontseiluaren akordioaren oinarri den txostenaren arabera (epaia betearazteko organo administratibo eskudunaren oniritzia du), 9/2012 Foru Arauaren 27. artikuluko irtenbideetako edozein aplika daiteke enklabea ezabatzeko eta Epaia betearazteko, eta, jakinaren gainean Foru Arau horrek ez diola ahalmena ematen Foru Aldundiari udal-barrutiak eraldatzeko prozedurarik hasteko, badirudi tesi hori oinarritzen dela 316/13 Epaian jasotako aginduan, contra legem dela jakitun (9/2012 Foru Arauaren 36. art.). Halaber, txostenean ez da inola ere aipatzen Foru Arau horren 27.3. artikulua, udal-barrutien eraldaketari boluntariotasunaren muga ezartzen diona, argi eta garbi ez dagoena, Busturiko udal-barrutiaren zati bat Sukarrietaren mesedetan bereizteko,

Horregatik guztiagatik, Foru Aldundiko Gobernu Batzordeak San Antonioko enklabea ezabatzeko prozedura hasiko duela-eta, aldi berean Busturiko udal-barrutiaren zati bat Sukarrietaren mesedetan bereizteko asmoz, horretarako guztirako 9/2012 Foru Arauaren 27. artikuluak jasotako arauei helduta, Osoko Bilkurak aho batez adostu zuen Gobernu Batzordeari jakinaraztea:

1.- Hasitako prozedura legez kanpokoa dela eta ez duela errespetatzen EAEANren 2015eko abenduaren 18ko Erabakian ezarritako prozedura, 316/13 Epaia betearazteko emana, hau da, 8/1993 Foru Arauaren IV. Tituluaren II. kapituluan ezarritakoa.

2.- San Antonioko enklabea ezabatu behar dela 8/1993 Foru Arauan ezarritakoaren arabera. Aldi berean Gobernu

abogada de la Diputación de 4 de diciembre de 2015 dirigido al TSJ, señala como procedimiento a seguir en la supresión del enclave el establecido en los arts. 53 y siguientes de la Norma Foral 8/1993, de términos municipales de Bizkaia.

TERCERO.- Todo ello se confirma por el TSJ en Providencia de 18 de diciembre de 2015, notificada a la Diputación Foral, el 23 de diciembre. Providencia en la que se determina que el procedimiento a seguir para la supresión del enclave de San Antonio es el establecido en el capítulo II del Título IV de la Norma Foral 8/1993.

CUARTO.- De forma contradictoria con todo lo anterior, el documento de Eibex, contratado por la Diputación Foral para la supresión del enclave y segregación de parte del término municipal de Busturia a favor de Sukarrieta, entiende de aplicación el procedimiento de la Norma Foral 9/2012, de demarcaciones territoriales, y en concreto su art. 27, omitiéndose siempre en el documento Eibex que el mismo art. 27 en su número 3 exige el principio de voluntariedad para la segregación de parte de Busturia a favor de Sukarrieta, y que además el art. 36 de la Norma Foral no le habilita a la Diputación a iniciar un procedimiento de alteración de términos municipales, que es lo que supone la segregación de parte de Busturia a favor de Sukarrieta.

QUINTO.- En el informe que sustenta el Acuerdo del Consejo de Diputados, avalado por el órgano administrativo responsable de ejecución de la sentencia, se sostiene que para la supresión del enclave y ejecución de la Sentencia se puede aplicar cualquiera de las soluciones del art. 27 de la Norma Foral 9/2012, y sabiendo que tal Norma Foral no permite a la Diputación Foral iniciar el procedimiento de alteración de términos municipales, parece que se sustenta tal tesis por imperativo del fallo de la Sentencia 316/13, a sabiendas de que es contra legem (art. 36 Norma Foral 9/2012). Asimismo, en ningún momento en el informe se hace referencia alguna al art. 27.3 de la Norma Foral 9/2012, que a la alteración de términos municipales impone el límite de la voluntariedad, claramente inexistente, para la segregación de parte del término municipal de Busturia, a favor de Sukarrieta.

Por todo ello, ante la iniciación del procedimiento de supresión del enclave de San Antonio, por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral con la pretensión de que al mismo tiempo se proceda a la segregación de parte del término municipal de Busturia a favor de Sukarrieta, siguiendo para todo ello las prescripciones del art. 27 de la Norma Foral 9/2012, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó poner en conocimiento del Consejo de Gobierno:

1.- Que el procedimiento iniciado es ilegal y no respeta el procedimiento establecido en la Providencia de 18 de diciembre de 2015 del TSJPV, dictado para la ejecución de la

Batzordeak prozedura bat hasi nahi badu Busturiko zati bat Sukarrietaren mesedetan bereizteko, prozedura horrek ezin du sekula izan 8/1993 Foru Arauaren IV. Tituluan ezarritakoa.

3.- Indarrean den 9/2012 Foru Arauaren arabera, Foru Aldundiko inolako organorik ezin du hasi Busturiko udal-barrutiaren zati bat bereizteko prozedura (36. art., udal-akordio bidez baino ez da hasiko, eta, gainera, boluntariotasun-printzipioaren arabera baino ezin da burutu (27.3. art.); beraz, Foru Aldundiak ezin du hasi -2016ko martxoan- prozedurarik Busturiko udal-barrutia eraldatzeko, bereiziz, Udalaren ageriko borondatearen kontra eta eskuduntza materialik gabe prozedura hasteko, ez baldin badu nahi prebarikazioan erori.

4.- San Antonioko enklabea ezabatzeko prozeduran, Foru Aldundiak, legea aplikatzeko orduan berdintasun-eskubidea urratu nahi ezean, ezin du erabili 8/1993 Foru Arauan ezarritakoa aplikatuz ezabaturiko 81 enklabeak ezabatzeko izapideturiko gainerako prozeduren bestelakorik. Adibide gisa, akordio honen jakinarazpenarekin batera Arboleta eta Uduletako espedienteei buruzko dokumentazioa igorriko da. Horien arabera, enklabea ezabatu egingo da, baina eutsi egingo zaio udalerrien eta jabeen arteko akordioaren bideari, udal-barrutien balizko eraldaketan ados jar daitezen, 8/1993 Foru Arauaren III. Tituluan ezarritakoaren arabera.

Sentencia 316/13, es decir el establecido por el capítulo II del Título IV de la Norma Foral 8/1993.

2.- La supresión del enclave de San Antonio debe llevarse a cabo de conformidad con el procedimiento establecido en la Norma Foral 8/1993. Si al mismo tiempo el Consejo de Gobierno quiere iniciar un procedimiento de segregación de parte de Busturia a favor de Sukarrieta, el procedimiento elegido no puede ser nunca el establecido en el Título IV de la Norma Foral 8/1993.

3.- De conformidad con la vigente Norma Foral 9/2012, ningún órgano de la Diputación Foral puede iniciar un procedimiento de segregación de parte del término municipal de Busturia (art. 36 se iniciará solo por acuerdo municipal), y además sólo puede llevarse a cabo de conformidad con el principio de voluntariedad (art. 27.3); lo que implica que nunca la Diputación Foral puede iniciar -en marzo de 2016- un procedimiento para la alteración del término municipal de Busturia, por segregación, contra la voluntad expresa del Ayuntamiento, y sin competencia material para iniciar el procedimiento, salvo que quiera incurrir en prevaricación.

4.- En el procedimiento de supresión del enclave de San Antonio la Diputación Foral, si no se quiere vulnerar el derecho a la igualdad en la aplicación de la ley, no puede seguirse un procedimiento distinto, al resto de procedimientos tramitados para la supresión de los 81 enclaves suprimidos en aplicación de lo dispuesto en la Norma Foral 8/1993. A título de ejemplo se acompañará a la notificación de este acuerdo la documentación relativa a los expedientes de Arboleta y Uduleta. Al efecto, se procede a suprimir el enclave y a mantener la vía de acuerdo entre los municipios y propietarios, para que alcancen un acuerdo para la eventual alteración de los términos municipales, de conformidad con el procedimiento establecido en el Título III de la Norma Foral 8/1993.

Eta besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea/El Alcalde

Aitor Aretxaga Telletxea

Idazkaria/El Secretario,

Víctor-Martín Amparan Álvarez